

REGLAMENTO DE LA COMISIÓN DE CALIDAD DE LA ESCUELA UNIVERSITARIA DE INGENIERÍA DE VITORIA-GASTEIZ (E.U.I.)

- Aprobado en Junta de Escuela el 9/julio/2010
- Aprobado por el Servicio Jurídico de la UPV/EHU, nº exp. 10/191
- Traducido al euskara por el Servicio de Euskara de la UPV/EHU
- Aprobado en Consejo de Gobierno de la UPV/EHU el 22/12/2010

ÍNDICE

Art. 1. Objeto del Reglamento.....	3
Art. 2. Régimen jurídico.....	3
Art. 3. Funciones	3
Art. 4. Estructura y composición	4
4.1. De los miembros natos.....	4
4.2. De los miembros de representación	4
Art. 5. Comisiones de apoyo.....	5
5.1 Comisión de Titulación	5
5.2 Comisión de Curso.....	6
Art. 6. Régimen de Funcionamiento	7
Disposición adicional primera.	7
Disposición adicional segunda.....	8
Disposición derogatoria.....	8
Disposición transitoria primera.	8
Disposición transitoria segunda.	8
Disposición transitoria tercera.	8
Disposición final	8

REGLAMENTO DE LA COMISIÓN DE CALIDAD DE LA ESCUELA UNIVERSITARIA DE INGENIERÍA DE VITORIA-GASTEIZ (E.U.I.)

Art. 1. Objeto del Reglamento

- 1.- El objeto del presente Reglamento es establecer la estructura, composición y funciones del órgano responsable del Sistema de Garantía Interna de Calidad (SGIC) de la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz.
2. Dicho órgano es la Comisión de Calidad de la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz.
3. La Comisión de Calidad es una comisión nombrada por la Junta de Escuela, conforme a lo establecido por el Reglamento de la Escuela y por las directrices del Reglamento Marco de la Comisión de Calidad de los Centros Docentes de la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea.
4. La Junta de Escuela, en tanto que órgano colegiado representativo y de gobierno ordinario de la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz, tiene la responsabilidad y la competencia de aprobar la política y objetivos de calidad de la Escuela, así como la de elaborar, modificar y aprobar en primera instancia la constitución, composición y funciones de la Comisión de Calidad que se definen en este reglamento.
5. Así mismo, la Junta de Escuela es responsable de la aprobación de acciones de mejora en las diferentes titulaciones, en el marco del Sistema de Garantía de la Calidad de los Títulos, atendiendo, entre otros, a los informes de evaluación del sistema presentados por la Comisión de Calidad.

Art. 2. Régimen jurídico

1. La Comisión de Calidad se regirá por este Reglamento elaborado por la Junta de Escuela y aprobado por el Consejo de Gobierno de la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea.
2. En lo no previsto en este Reglamento, será de aplicación lo establecido en los Estatutos y en el Reglamento Marco de la Comisión de Calidad de los Centros Docentes de la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea, en el Reglamento de la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz, y en la demás normativa que le sea de aplicación.

Art. 3. Funciones

1. La Comisión de Calidad apoya y asesora al Equipo de Dirección y a la Junta de Escuela en la planificación, despliegue y seguimiento del desarrollo curricular de los Títulos que se imparten en la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz.
2. Por delegación de la Junta de Escuela, participa junto al Equipo de Dirección en las tareas de planificación y seguimiento del Sistema de Garantía Interna de Calidad de los Títulos que se imparten en la Escuela.
3. Oída la Junta de Escuela con carácter previo sobre los criterios a utilizar, la Comisión de Calidad de la Escuela emitirá los informes para la posterior evaluación del profesorado, requeridos por cualquier instancia externa a la Escuela.
4. La Comisión de Calidad además tendrá las siguientes funciones:
 - a) Proponer a la Junta de Escuela el diseño y el modo de implantación, de puesta en marcha y de seguimiento del Sistema de Garantía Interna de Calidad (SGIC).
 - b) Proponer a la Junta de Escuela la aprobación de resoluciones en el ámbito de su competencia.
 - c) Elevar las propuestas de la Comisión al Equipo de Dirección en el ámbito de su competencia.
 - d) Recibir de la dirección de la Escuela la formulación de los objetivos anuales de la misma y, en su caso, coordinar y realizar el seguimiento de su ejecución.
 - e) Realizar el seguimiento de los procesos a través de los indicadores asociados a los mismos.
 - f) Recibir los resultados de las encuestas de satisfacción y proponer criterios para las propuestas de mejora que puedan derivarse de esos resultados.

- g) Realizar un Informe Anual de Seguimiento a partir del análisis y revisión del SGIC, proponiendo a su vez las acciones de mejora que se consideren necesarias para la obtención de los objetivos establecidos en los planes de estudio de los Títulos que se imparten en la Escuela.
 - h) Contribuir a la obtención y a la renovación periódica de la acreditación de los Títulos que se imparten en la Escuela. Promover la participación activa de todos los miembros de la Escuela para este fin.
 - i) Servir de vehículo de comunicación de la política y objetivos de calidad, garantizando su cumplimiento y su difusión entre la comunidad universitaria.
 - j) Promover la formación del profesorado de la Escuela en herramientas y metodologías docentes para la mejora del desarrollo curricular de los Títulos que se imparten en la Escuela.
 - k) Promover la formación de sus miembros y de los grupos de interés internos de la Escuela, en materia de calidad y evaluación.
 - l) Cuantas otras funciones le encargue la Junta de Escuela o la normativa de la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea.
5. La Junta de Escuela, a propuesta del Equipo de Dirección, podrá delegar en la Comisión de Calidad funciones relacionadas con la gestión de la calidad que le fueran propias.

Art. 4. Estructura y composición

1. La Comisión de Calidad se forma con miembros natos y miembros de representación y para el mejor cumplimiento de sus funciones se estructura en las Comisiones de Apoyo que se definen en el artículo 5. Los miembros de representación deberán ser nombrados por la Junta de Escuela.
2. La Comisión de Calidad estará integrada por:
 - A. Miembros natos:
 - a. Quienes ocupen los cargos de Dirección, Subdirección de Ordenación Académica y Subdirección de Calidad.
 - b. Quienes ostenten la Presidencia y la Secretaría del Consejo de Estudiantes de la Escuela.
 - B. Miembros de representación:
 - c. Por cada Titulación existente en la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz, su Coordinadora o Coordinador.
 - d. Una o un representante del PDI por cada Titulación existente en la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz, que deberá ser de un área de conocimiento que no sea coincidente con la del Coordinador o Coordinadora de esta titulación.
 - e. Una o un representante del Personal de Administración y Servicios.
3. La presidencia la ostentará el Director o Directora de la Escuela, o persona en quien delegue.
4. Actuará de Secretaria o Secretario de la Comisión de Calidad del Centro la Coordinadora o Coordinador de Titulación de menos antigüedad en la Escuela y, subsidiariamente, el o la más joven de edad.
5. Los deberes y derechos de los miembros de la Comisión de Calidad y de sus comisiones de apoyo, son los establecidos con carácter general para los miembros de los Órganos Colegiados en el artículo 17 del Reglamento de la Escuela.

4.1. DE LOS MIEMBROS NATOS.

A efectos de suplencia y sustitución, serán suplentes de los miembros natos del Equipo de Dirección otros miembros del mismo Equipo de Dirección. De los miembros natos del Consejo de Estudiantes, otros miembros del mismo Consejo de Estudiantes.

La condición de miembro nato se mantendrá mientras dure el mandato del cargo por el que se es miembro de la Comisión de Calidad.

4.2. DE LOS MIEMBROS DE REPRESENTACIÓN

1. No podrán ser miembros de representación quienes ostenten cualquier cargo de gobierno unipersonal o cargo de gestión por designación, en la propia Escuela Universitaria de

Ingeniería de Vitoria-Gasteiz o en otras instancias de la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea.

2. La coordinación de la titulación será ostentada por quien sea elegido por y entre todos los miembros del profesorado, con docencia en la titulación, que aspiren a ello.
3. Cada representante de PDI de Titulación será elegido por el Equipo de Dirección de una terna formada por los candidatos más votados por las Secciones Departamentales con docencia en la respectiva titulación.
4. La representación del PAS será elegida por y entre todos los miembros del PAS de la Escuela.
5. La Junta de Escuela en pleno deberá refrendar mediante nombramiento personal cada uno de los miembros de representación elegidos del modo antes descrito y propuestos a la Junta por el Equipo de Dirección.
6. Si la Junta de Escuela no procediera al nombramiento de uno o más de los miembros de representación propuestos del modo antes descrito, la Comisión de Calidad se podrá constituir con los miembros efectivamente nombrados, si el número de éstos es al menos la mitad de los previstos en el apartado 2B del artículo 4. En el plazo máximo de un mes desde el rechazo a algún miembro propuesto, se deberá presentar a la Junta de Escuela una nueva propuesta de miembros para su nombramiento, en el número que falten hasta completar el establecido en el apartado 2B del artículo 4.
7. El nombramiento de los miembros de representación deberá incluir el nombramiento de su suplente a efectos de sustitución y suplencia.
8. El nombramiento se hará por un periodo de cuatro años, con la excepción recogida en el punto siguiente.
9. La renovación de los Coordinadores o Coordinadoras y de representantes de PDI y PAS se realizará por mitades cada dos años. Cuando todos estos miembros hayan sido nombrados simultáneamente, en la primera renovación de la Comisión cesará la mitad de miembros con mayor antigüedad en la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea, o subsidiariamente de más edad, para quienes el nombramiento será, excepcionalmente, de solamente dos años.
10. La cualidad de miembro de representación sólo podrá ser ejercida por un máximo de ocho años consecutivos o doce alternos.

Art. 5. Comisiones de apoyo

Para el mejor desempeño de sus funciones, la Comisión de Calidad se podrá auxiliar, por cada Titulación que se imparta en la Escuela, con una Comisión de Titulación y Comisiones de Curso.

- Estas comisiones deberán ser expresamente creadas por la Comisión de Calidad, por lo que dependerán de la Comisión de Calidad y tendrán carácter consultivo. Sus funciones se ejercen con carácter subsidiario por lo que la Comisión de Calidad podrá asumir todas o parte de las funciones de estas comisiones que se definen en este reglamento.
- La Junta de Escuela, a propuesta de la Comisión de Calidad, podrá constituir otras comisiones de apoyo con carácter permanente o coyuntural.
- En lo no previsto en este reglamento o en la normativa vigente, cada una de estas comisiones establecerá su modo de funcionamiento interno.
- Los miembros de estas comisiones se renovarán a la vez y del mismo modo que los miembros de la Comisión de Calidad.
- Los miembros representantes del PAS y de los estudiantes podrán renunciar a ser miembros de estas comisiones de apoyo. Para ello deberán hacer declaración expresa y por escrito de esta renuncia ante la Comisión de Calidad cuando corresponda hacer su renovación.

5.1 COMISIÓN DE TITULACIÓN

1. Cada Comisión de Titulación estará formada por:
 - Un miembro del Equipo de Dirección, quien presidirá la Comisión y quien podrá delegar la presidencia en el Coordinador o Coordinadora de la Titulación.
 - El Coordinador o la Coordinadora de la titulación.
 - El Coordinador o la Coordinadora de cada curso de la titulación o, en su caso, el representante definido en el apartado 5.2.2.

- Tres profesoras o profesores elegidos por las secciones departamentales con docencia en la titulación que no estén representadas por alguno de los anteriores Coordinadores o Coordinadoras siempre que existan candidatos.
 - Un o una representante del PAS, elegida por y entre todos los miembros del PAS de la Escuela.
 - Dos estudiantes de esta Titulación, designados por el Consejo de Estudiantes.
2. En ausencia del Presidente, ejercerá la presidencia el Coordinador o Coordinadora asistente del curso más alto. Ejercerá la Secretaría de la Comisión el Coordinador o Coordinadora asistente del curso más bajo.

Es función de la Comisión de Titulación:

- Coordinar la docencia en la Titulación, vigilando el cumplimiento de metodologías y contenidos establecidos en el Plan de Estudios.
- Vigilar y corregir los solapamientos y deficiencias de contenidos en las materias de distintos cursos.
- Estudiar y proponer evaluaciones conjuntas u otras medidas para verificar que se alcanzan las competencias generales y transversales de la Titulación.
- Analizar e informar sobre los resultados académicos, en el ámbito de su competencia.
- Supervisar y establecer directrices para la asignación de prácticas externas y de proyectos fin de grado y/o máster.
- Proponer y elevar sus acuerdos a la Comisión de Calidad.
- Recibir y coordinar, en el ámbito de su competencia, las propuestas de las Comisiones de Curso.
- Atender y responder, en el ámbito de su competencia, las sugerencias y quejas que cualquier PDI o estudiante le presente respecto al desarrollo curricular del Plan de Estudios de la Titulación
- Promover, en el ámbito de su competencia, mejoras de ordenación académica.
- Cualquier otra que le encargue la Comisión de Calidad o le asigne el Sistema de Garantía Interna de Calidad.

5.2 COMISIÓN DE CURSO

1. Cada Comisión de Curso estará formada por:
- El Coordinador o la Coordinadora de curso, miembro de la Comisión de Titulación, que la preside.
 - Un profesor o profesora por cada una de las asignaturas del curso que no esté representada por el Coordinador o Coordinadora.
 - Un o una delegado/a de este Curso.
2. Cuando un curso sea común a varias titulaciones, existirá una única Comisión de Curso. En este caso, el Coordinador o Coordinadora de curso será miembro de solamente una Comisión de Titulación. En las Comisiones de Titulación de las otras titulaciones delegará, con carácter permanente, su representación en otros miembros PDI de la Comisión de Curso.
3. La Comisión de Calidad designará el Coordinador o la Coordinadora de curso y, en su caso, los o las representantes por delegación en otras Comisiones de Titulación, a propuesta del conjunto de profesores del curso.
4. En ausencia del Coordinador o Coordinadora de Curso, ejercerá la presidencia el PDI asistente de mayor antigüedad en la Escuela. Ejercerá la función de secretario el PDI asistente de menor antigüedad en la Escuela. En ambos casos anteriores y subsidiariamente, los asistentes de mayor y menor edad, respectivamente.
5. Es función de la Comisión de Curso:
- Coordinar la docencia en el Curso, vigilando el cumplimiento de metodologías y contenidos establecidos en el Plan de Estudios para las asignaturas del Curso.
 - Vigilar y corregir los solapamientos y deficiencias de contenidos en las materias del curso.
 - Proponer y elevar sus acuerdos a la Comisión de Calidad.
 - Recibir y coordinar, en el ámbito de su competencia, las propuestas de las Secciones Departamentales.

- Estudiar y proponer evaluaciones conjuntas u otras medidas para verificar que se alcanzan las competencias específicas y transversales del módulo o curso.
- Analizar e informar sobre los resultados académicos, en el ámbito de su competencia.
- Atender y responder, en el ámbito de su competencia, las sugerencias y quejas que cualquier PDI o estudiante le presente respecto al desarrollo curricular del Plan de Estudios del Curso.
- Promover, en el ámbito de su competencia, mejoras de ordenación académica.
- Cualquier otra que le encargue la Comisión de Calidad, su Comisión de Titulación o que le asigne el Sistema de Garantía Interna de Calidad.

Art. 6. Régimen de Funcionamiento

1. Para las convocatorias de la Comisión de Calidad y de las Comisiones de Titulación y de Curso se aplicará lo dispuesto en los artículos 14 y 15 del Reglamento de la Escuela.
2. Para lo no estipulado en este reglamento y tanto para la Comisión de Calidad como para cualquiera de las comisiones de apoyo, la adopción de los acuerdos, su publicidad y las actas de las reuniones, se regularán por lo previsto en los artículos 19 a 22 del Reglamento de la Escuela. Las actas se ajustarán en su formato y tramitación a lo establecido en el Manual de Procesos y Procedimientos del Sistema de Gestión de la Escuela.
3. La **Comisión de Calidad** se reunirá con carácter ordinario al menos una vez cada semestre y con carácter extraordinario cuando la naturaleza del asunto lo requiera.
4. La **Comisión de Calidad** quedará válidamente constituida con la asistencia de la mitad, al menos, del total de sus miembros de representación. Para la adopción de cualquier acuerdo se deberá contar, al menos, con la presencia de la mitad de sus miembros de representación y con el voto favorable de la mitad de los miembros presentes de la Comisión. El Presidente o la Presidenta tendrán voto de calidad. Las decisiones de la Comisión no revestirán carácter ejecutivo. Serán remitidas al Equipo de dirección del Centro para que se tomen las medidas pertinentes.
5. Cada **Comisión de Titulación** se reunirá con carácter ordinario al menos una vez cada trimestre y con carácter extraordinario cuando la naturaleza del asunto lo requiera.
6. La **Comisión de Titulación**, quedará válidamente constituida con la asistencia de, al menos, la mitad del total de sus miembros. Para la adopción de cualquier acuerdo se deberá contar, al menos, con el voto favorable de los 2/3 de los miembros asistentes de la Comisión.
7. Cada **Comisión de Curso** se reunirá con carácter ordinario al menos una vez cada mes lectivo y con carácter extraordinario cuando la naturaleza del asunto lo requiera. Su constitución y toma de acuerdos serán los mismos que para el caso de la Comisión de Titulación.
8. Las posibles reclamaciones a los acuerdos de las **Comisiones de Curso** y de **Titulación** se podrán presentar ante la Comisión de Calidad o ante la Junta de Escuela que tiene capacidad ejecutiva. En cualquier caso, los acuerdos son recurribles en alzada ante el Rector.
9. La repetida inasistencia a las sesiones de las comisiones de cualquiera de sus miembros, supondrá la baja definitiva sin derecho a suplencia. Cada Comisión regulará esta contingencia, tomando como referencia el Reglamento de la Escuela (ausencia injustificada a dos sesiones ordinarias o a cuatro sesiones de cualquier tipo)
10. El Presidente podrá invitar a personas externas a la comisión que sean expertas en el tema a tratar.

Disposición adicional primera.

Esta Comisión de Calidad, por delegación de la Junta de Escuela, asume las funciones que el Sistema de Garantía Interna de Calidad de las Titulaciones que se imparten en la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz asigna a un órgano colegiado. Por tanto, la Comisión de Calidad sustituye a la Comisión del Sistema de Garantía de Calidad a que se hace referencia en el Manual de Calidad y en el Manual de Procesos y Procedimientos de la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz.

Disposición adicional segunda.

Los miembros de las comisiones están sujetos al deber de confidencialidad, especialmente en lo relativo a los datos personales.

Así mismo, los ficheros de datos personales de las Comisiones en todo caso quedarán sujetos en su creación y funcionamiento a la normativa de protección de datos de carácter personal.

Disposición derogatoria.

Quedan derogadas todas las referencias que en el Manual de Calidad y en el Manual de Procesos y Procedimientos de la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz se hacen a la Comisión del Sistema de Garantía de Calidad y a las dos subcomisiones de Calidad y Docentiaz, que deberán ser sustituidas por la Comisión de Calidad.

Disposición transitoria primera.

1. La aprobación definitiva de este Reglamento de la Comisión de Calidad corresponde al Consejo de Gobierno de la UPV-EHU, a propuesta de la Junta de Escuela, tras la emisión del preceptivo informe de legalidad.
2. Tras esta aprobación, este Reglamento de la Comisión de Calidad se incorporará al Reglamento de la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz en el Anexo VI del Reglamento en sustitución de su redacción actual.

Disposición transitoria segunda.

En tanto se produce la aprobación definitiva de este Reglamento por el Consejo de Gobierno de la UPV-EHU, la Comisión de Calidad y las comisiones de apoyo que aquí se definen, con carácter provisional se mantendrán con los mismos miembros y composición que tienen a fecha 9 de julio de 2010. Una vez producida la aprobación definitiva de este Reglamento, se convocará en el plazo de dos meses a la Junta de Escuela de la EU de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz Extraordinaria para el nombramiento de los miembros de la Comisión de Calidad y para constituir formalmente estas comisiones conforme a este Reglamento.

Disposición transitoria tercera.

En el plazo de dos meses a partir de la aprobación definitiva de este Reglamento deberán estar actualizados todos los documentos del Manual de Calidad y del Manual de Procesos y Procedimientos de la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz para adecuarlos a este Reglamento de la Comisión de Calidad.

Disposición final

El presente Reglamento entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz a 9 de julio de 2010

GASTEIZKO INGENIARITZAKO UNIBERTSITATE ESKOLAKO KALITATE BATZORDEAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.- Arautegiaren helburua

1. 1.- Arautegi honen helburua da Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren ardura duen organoaren egitura, osaera eta eginkizunak zehaztea.

2. Organo hori da Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Kalitate Batzordea.

3. Kalitate Batzordea Eskolako Batzarrak izendatzen du, Eskolako Arautegiari jarraiki eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ikastegietako Kalitate Batzordearen Oinarrizko Arautegiaren arabera.

4. Eskolako Batzarrari dagokio, UPV/EHUko Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako gobernu eta ordezkarietarako kide anitzeko organoa den aldetik, eskolako kalitate politika eta helburuak onartzea, bai eta arautegi honetan Kalitate Batzorderako zehazten diren eraketa, osaera eta funtzioak zehaztu, aldatu eta haiei hasierako onespena ematea ere.

5. Era berean, Eskolako Batzarrari dagokio titulazioetarako proposatzen diren hobekuntza ekintzak onartzea, tituluen kalitatea bermatzeko sistemaren esparruan Kalitate Batzordeak egindako txostenak aintzat hartuta, besteak beste.

2. artikulua.- Araubide juridikoa

1. Kalitate Batzordeak jardungo du Eskolako Batzarrak egindako eta Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak onartutako arautegi honen arabera.

2. Arautegi honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Estatutuak, Euskal Herriko Unibertsitateko Kalitateko Batzordearen Oinarrizko Arautegia, Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Arautegia eta gai honi dagozkion gainerako arautegiak.

3. artikulua.- Eginkizunak

1. Kalitate Batzordeak zuzendaritzari eta Eskolako Batzarrari laguntza eta aholkua emango die Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan ematen diren tituluen curriculumak garatzeko plangintza, zehaztapen eta jarraipen lanean.

2. Eskolako Batzarrak horretarako eskuordetza emanda, eskolan ematen diren tituluen Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) plangintza eta jarraipen zereginetan aritzen da zuzendaritzarekin batera.

3. Eskolako Batzarraren iritzia entzun ondoren erabili beharreko irizpideez, Kalitate Batzordeak irakasleen ebaluaziorako txostenak egingo ditu eskolaz kanpoko instantzietan eskatzen dituztenean.

4. Kalitate Batzordeak beste eginkizun hauek ere izango ditu:

a/ Eskolako Batzarrari proposatzea Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema diseinatu, ezarri, abian jarri eta hari jarraipena egiteko modua.

b/ Eskolako Batzarrari bere eskumenen eremuko erabaki proposamenak aurkeztea.

c/ Bere eskumenen eremuko gaietan egindako proposamenak aurkeztea zuzendaritzari:

d/ Zuzendaritzaren eskutik Eskolaren urteko helburuak jaso eta, behar denean, helburuok betetzeko prozesuaren jarraipen lana koordinatu eta egitea.

e/ Prozesuei jarraipena egitea dagozkien adierazleen bitartez.

f/ Gogobetetze inkesten emaitzak jasotzea eta haietatik abiatuta hobekuntzak proposatzeko irizpideak ematea.

g/ Urteko jarraipen txostena egitea Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren azterketa eta berrikuspenetik abiatuta, eta hobekuntza ekintzak proposatzea eskolan ematen diren titulazioen ikasketa planetan ezarritako helburuak betetzeko.

h/ Eskolan ematen diren titulazioen akreditazioa lortzeko eta aldiro berritzeko laguntza ematea eta horretarako eskolako kide guztien parte hartze aktiboa sustatzea.

i/ Ikastegiko kalitate politika eta helburuen berri emateko tresna izatea, eta helburuok bete daitezen eta unibertsitateko kideen artean zabal daitezen bermatzea.

j/ Eskolako irakasleek eskolan ematen diren tituluen curriculumak hobeto garatzeko tresnak eta metodologiak ikastea sustatzea.

k/ Eskolako kideek eta barruko interes taldeek kalitateari eta ebaluazioari buruzko prestakuntza hartzea bultzatzea.

l/ Eskolako Batzarrak edo Euskal Herriko Unibertsitateko arautegiek haren gain uzten dituzten gainerako zereginak.

5. Eskolako Batzarrak, zuzendaritza taldearen proposamenari jarraituz, Kalitate Batzordeari eskuordetu ahal izango dizkio berari dagozkion eta kalitatearekin zerikusia duten eginkizunak.

4. artikulua. Egitura eta osaera

1. Kalitate Batzordea berezko kideek eta kide hautetsiek osatzen dute. Kide hautetsiek Eskolako Batzarrak izendatu beharko ditu. Bestalde, bere zereginak hobeto betetzeko, batzordeak 5. artikuluan zehazten diren laguntza batzordeak izango ditu.

2. Hauek izango dira Kalitate Batzordearen osakideak:

A. Berezko kideak:

a/ Zuzendaria, Akademia Antolakuntzako zuzendariordea eta Kalitateko zuzendariordea.

b/ Eskolako Ikasleen Kontseiluko burua eta idazkaria.

B. Kide hautetsiak:

c/ Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan ematen den titulazio bakoitzeko koordinatzailea.

d/ Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako titulazio bakoitzeko irakasle eta ikertzaileen ordezkari bat, titulazioko koordinatzailearen jakintza arlokoa ez dena.

e/ Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

3. Batzordeko burua eskolako zuzendaria izango da, edo hark bere ordezkari horretarako izendatzen duena.

4. Kalitate Batzordeko idazkaria eskolan denbora gutxien daraman titulazioko koordinatzailea izango da, eta, aukera horren ezean, koordinatzailearik gazteena.

5. Kalitate Batzordeko eta laguntza batzordeetako kideen betebeharrak eta eskubideak eskolako arautegiko 17. artikuluan kide anitzeko organoetako kideentzat ezarritakoak dira.

4.1. BEREZKO KIDEAK.

Behin betiko eta behin-behineko ordezkapenei dagokienez, zuzendaritzakoak diren berezko kideen ordezkoak zuzendaritza horretako beste kide batzuk izango dira. Ikasleen Kontseilukoak diren berezko kideen ordezkoak ikasleen kontseilu horretako beste kide batzuk izango dira.

Berezko kideek hala izaten jarraituko dute Kalitate Batzordeko kide izateko bidea ematen dien karguan dauden bitartean.

4.2. KIDE HAUTETSIAK.

1. Ezin izango dira kide hautetsiak izan Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan edo Euskal Herriko Unibertsitateko beste egitura batzuetan pertsona bakarreko gobernu kargua edo izendapenezko gestio kargua duten pertsonak.

2. Titulazioko koordinatzailea titulazioan irakasten duten irakasle guztiek hautatuko dute, horretarako aurkeztu diren titulazioko irakasleen artetik.

3. Titulazio bakoitzeko irakasleen ordezkaria zuzendaritzak hautatuko du titulazioan irakasten duten sail atalek gehien bozkatutako hiru irakasleen artetik.

4. AZPkoen ordezkaria eskolako AZPko kide guztien hautatuko dute beren artetik.

5. Eskolako Batzarraren osoko bilkurak berretsi beharko du, banan banako izendapenaren bidez, oraintsu azaldutako moduan aukeratutako eta zuzendaritzak proposatutako kideen hautapena.

6. Eskolako Batzarrak gorago azaldutako moduan hautatutako kide bat edo gehiago izendatuko ez balitu, Kalitate Batzordea eratu ahal izango da izendatuak izan diren kideekin baldin eta haien kopurua 4. artikuluko 2.B atalean aurreikusitako kopuruaren erdia bada, gutxienez. Proposatutako kidea(k) errefusatu dituenetik hilabeteko epean gutxienez, Eskolako Batzarrari izendapenerako proposamen berria aurkeztu beharko zaio. Bertan proposatuko zaizkio 4. artikuluko 2.B atalean zehaztutako kopurua osatzeko falta diren adina kide.

7. Ordezkaritza hautetsiak izendatzearekin batera haien ordezkoak ere izendatuko dira.

8. Izendapena lau urterako izango da, hurrengo puntuan azaltzen den salbuespenarekin.

9. Koordinatzaileak eta irakasle eta ikertzaileen eta AZPkoen ordezkariak bi urterik behin aldatuko dira, eta haien erdiak bakarrik. Kide horiek guztiak aldi berean izendatu badira, batzordea lehenengoz berriro behar denean lehendabizi aldatuko direnak izango dira Euskal Herriko Unibertsitatean denbora gehien daramaten kideak, edo, aukera horren ezean, batzordekiderik

zaharrenak. Beraz, horientzat, salbuespenez, izendapena bi urterako bakarrik izango da.

10. Kide hautetsiak gehienez zortzi urtez segidan eta tartekako hamabi urtez egon ahal izango dira batzordean.

5. artikulua.- Laguntza batzordeak

Bere zereginak hobeto betetzeko, Kalitate Batzordeak eduki ahal izango ditu titulazioko batzorde bat eskolan ematen den titulazio bakoitzeko eta, gainera, mailako batzordeak.

* Batzorde hauek Kalitate Batzordeak sortu beharko ditu beren-beregi. Beraz, Kalitate Batzordearen menpekoak izango dira eta aholkurako izango dira. Batzorde hauek Kalitate Batzordearen menpekoak direnez, Kalitate Batzordeak arautegi honetan haientzat zehazten diren zeregin guztiak edo batzuk hartu ahal izango ditu bere gain.

* Eskola Batzordeak, Kalitate Batzordearen proposamenez, beste laguntza batzorde batzuk eratu ahal izango ditu, behin-behinekoak edo behin betikoak.

* Arautegi honetan edo indarreko bestelako arauetan zehaztuta ez dagoen guztian batzorde horietako bakoitzak bere barne jardunerako modua zehaztuko du.

* Batzorde hauetako kideak Kalitate Batzordekoak aldatzen direnean eta haiek aldatzen diren modu berean aldatuko dira.

* AZPkoen eta ikasleen ordezkari diren kideek uko egin ahal izango diote laguntza batzordeetako kide izateari. Horretarako, idatzi bat aurkeztu beharko diote Kalitate Batzordeari batzordeko kideak aldatzeko garaia heltzen denean.

5.1. TITULAZIOKO BATZORDEA.

1. Hauek izango dira Titulazio Batzordeko osakideak:

* Zuzendaritzako kide bat. Batzordeko burua izango da, baina titulazioko koordinatzaileari eskuordetu ahal izango dio zeregin hori.

* Titulazioko koordinatzailea.

* Titulazioko maila bakoitzeko koordinatzailea, edo, bestela, 5.2.2. atalean aipatutako ordezkaria.

* Titulazioan irakasten duten eta beste koordinatzaileek ordezkatzeko ez dituzten sail atalek aukeratutako hiru irakasle, baldin eta hautagairik balego.

* AZPkoen ordezkari bat, eskolako AZPko kide guztiek beren artetik hautatua.

* Titulazio honetako bi ikasle, Ikasleen Kontseiluak hautatuak.

2. Batzordeko burua ez badago, bileran dagoen ikasmaila goreneko koordinatzaileak burutuko du zeregin hori. Behereneko ikasmailako koordinatzaileak egingo ditu idazkari lanak.

Hauek dira Titulazioko Batzordearen zereginak:

* Titulazioko irakaskuntza koordinatzea, eta zaintzea ikasketa planean jasotako metodologiak erabil daitezen eta bertan bildutako edukiak landu daitezen.

* Maila desberdinetan eduki berberak eman ez daitezzen gainbegiratzea eta maila desberdinetako edukietan hutsunerik gerta ez dadin zaintzea.

* Ebaluazio bateratuak egiteko aukerak edo bestelako neurriak aztertu eta proposatzea titulazioko gaitasun orokorrak eta zeharkakoak lortzen direla egiaztatzeke.

* Emaizta akademikoak aztertu eta haiei buruzko txostena egitea, bere eskumenen eremuan.

* Kanpoko praktikak eta gradu edo master amaierako proiektuak egiteko jarraibideak ezartzea ea batzuk zein besteak gainbegiratzea.

* Bere erabakiak Kalitate Batzordeari aurkeztu eta proposatzea.

* Mailako batzordeen proposamenak jaso eta koordinatzea bere eskumenen eremuan.

* Irakasle edo ikasleek titulazioko ikasketa planaren curriculumaren garapenez aurkezten dituzten iradokizunak edo kexak jasotzea eta, bere eskumenen eremuan, erantzutea.

* Bere eskumenen eremuan antolakuntza akademikoaren hobekuntzak proposatzea.

* Kalitate Batzordeak edo Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemak haren gain uzten dituzten gainerakoak.

5.2. MAILAKO BATZORDEA

1. Hauek izango dira Mailako Batzordeko osakideak:

* Titulazioko Batzordeko kide den mailako koordinatzailea. Bera izango da burua.

* Koordinatzailearen bidez ordezkatuta ez dagoen mailako irakasgai bakoitzeko irakasle bat.

* Maila horretako ikasleen ordezkarikari bat.

2. Maila bat titulazio bat baino gehiagotan berdina denean, maila horretako batzorde bakarra egongo da. Kasu horretan mailako koordinatzailea titulazioko batzorde bateko kidea bakarrik izango da. Beste titulazioetako titulazioko batzordeetan eskuordetza emango die mailako batzordeko beste irakasle eta ikertzaile batzuei.

3. Kalitate Batzordeak mailako koordinatzailea izendatuko du eta, hala dagokionean, titulazioko beste batzorde batzuetan eskuordetzaz egongo diren ordezkaririk ere, mailako irakasle guztien proposamenez.

4. Mailako koordinatzailea ez badago, eskolan denbora gutxien daraman irakasle eta ikertzailea izango da burua. Idazkaria izango da bertaratutako irakasle eta ikertzaileen artean eskolan denbora gehien daramana. Horien ezean, bertaratutako pertsonarik zaharrenak eta gazteenak beteko dituzte batzordeko buruaren eta idazkariaren zereginak, hurrenez hurren.

5. Hauek dira Mailako Batzordearen zereginak:

* Mailako irakaskuntza koordinatzea, eta zaintzea ikasketa planean mailako irakasgaietarako jasotako metodologiak erabil daitezzen eta bertan bildutako edukiak landu daitezzen.

* Mailako gai desberdinetan eduki berberak eman ez daitezzen gainbegiratzea eta edukietan hutsunerik gerta ez dadin zaintzea.

* Bere erabakiak Kalitate Batzordeari aurkeztu eta proposatzea.

* Sail atalen proposamenak jaso eta koordinatzea bere eskumenen eremuan.

* Ebaluazio bateratuak egiteko aukerak edo bestelako neurriak aztertu eta proposatzea modulu edo mailako gaitasun espezifikoak eta zeharkakoak lortzen direla egiaztatzeko.

* Emaidza akademikoak aztertu eta haiei buruzko txostena egitea, bere eskumenen eremuan.

* Irakasle edo ikasleek mailako ikasketa planaren curriculumaren garapenez aurkezten dituzten iradokizunak edo kexak jaso eta bere eskumenen eremuan erantzutea.

* Bere eskumenen eremuan antolakuntza akademikoaren hobekuntzak proposatzea.

* Kalitate Batzordeak, haren titulazioko batzordeak edo Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemak haren gain uzten dituen gainerakoak.

6. artikulua.- Funtzionamendurako araubidea.

1. Kalitate Batzordearen, titulazioko batzordeen eta mailako batzordeen deialdietarako aplikatuko da eskolako arautegiko 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoa.

2. Arautegi honetan jasota ez dagoenerako, Kalitate Batzordeak eta bere laguntza batzordeek eskolako arautegiko 19. artikulutik 22. artikulura bitartean zehaztutakoaren arabera jardungo dute erabakiak hartzeko, haien berri zabaltzeko eta bileren aktak egiteko. Akten formatua eta gestioa eskolako kudeaketa sistemako Prozesu eta Prozeduren Eskuliburuaren arabera izango dira.

3. **Kalitate Batzordeak** gutxienez ohiko bilera bat egingo du seihilekoan behin, eta ezohiko bilera egingo du horretarako premia dagoen bakoitzean.

4. **Kalitate Batzordea** balioz eratzeko beharrezkoa izango da gutxienez kide hautetsien erdiak bertan egotea. Erabakirik hartzeko, beharrezkoa izango da kide hautetsien erdiak gutxienez egotea bileran eta bertan dauden kideen erdiek gutxienez aldeko botoa ematea. Batzordeko buruak kalitateko botoa izango du. Batzordearen erabakiak ez dira nahitaez bete beharrekoak izango, baina eskolako zuzendaritzari bidaliko zaizkio beharrezko neurriak har ditzan.

5. **Titulazioko batzorde** bakoitzak gutxienez ohiko bilera bat egingo du hiruhilekoan behin, eta ezohiko bilera egingo du horretarako premia dagoen bakoitzean.

6. **Titulazioko Batzordea** balioz eratzeko beharrezkoa izango da gutxienez kide hautatuen erdiak bertan egotea. Erabakirik hartu ahal izateko beharrezkoa izango da bileran dauden batzordeko kideen bi herenek gutxienez aldeko botoa ematea.

7. **Mailako batzorde bakoitzak** gutxienez ohiko bilera bat egingo du eskola hilabetean behin, eta ezohiko bilera egingo du horretarako premia dagoen bakoitzean. Batzordea eratu eta erabakiak hartzeko baldintzak Titulazioko Batzordearen baldintza berberak izango dira.

8. **Mailako batzordeen eta titulazioko batzordeen** erabakien kontrako erreklamazioak Kalitate Batzordeari edo Eskolako Batzarrari aurkeztuko zaizkio, azken honek ahalmen betearazlea baitu. Edozelan ere, erabakien aurka gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio errektoreari.

9. Batzordeen bileretara behin eta berriro huts egiten duten kideek behin betiko utzi beharko dute batzordea, eta ez dute ordezkorik izateko eskubiderik izango. Batzorde bakoitzak bere erara arautuko du egoera hori, eskolako arautegia erreferentzia hartuta (justifikaziorik gabe ez azaltzea ohiko bi bileretara edo edozein motatako lau bileretara).

10. Batzordeko buruak gonbida ditzake bileretara bertan aztertu behar diren gaietako adituak, batzordeko kide ez izan arren.

Lehenengo xedapen gehigarria.

Kalitate Batzorde honek bere gain hartuko ditu, Eskolako Batzarrak eskuordetuta, Gasteizko Ingeniaritza Eskolako Titulazioen Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemak kide anitzeko organo bati esleitzen dizkion zereginak. Beraz, Kalitate Batzordeak Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Kalitate Eskuliburuan eta Prozesu eta Prozeduren Eskuliburuan aipatzen den Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemako Batzordea ordezkatzeko du.

Bigarren xedapen gehigarria.

Batzordeetako kideek isilekotasun betebeharra izango dute, batez ere datu pertsonalei dagokienez.

Era berean, batzordeek datu pertsonalen fitxategiak sortu eta erabiltzean men egin beharko diote datu pertsonalak babesteari buruzko arautegiari.

Xedapen indargabetzailea

Beraz, indargabetuta geratzen dira Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Kalitate Eskuliburuan eta Prozesu eta Prozeduren Eskuliburuan Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemako Batzordeari buruz eta Kalitate Azpibatzeari eta Docentiaz Azpibatzeari buruz egiten diren erreferentzia guztiak, Kalitate Batzordeak ordezkatzeko baititu batzorde horiek.

Lehen xedapen iragankorra

2.- Arautegi honi UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak eman behar dio behin betiko onespena, Eskolako Batzarraren proposamenari jarraituz eta behin legezko txostena jasota.

Gero, Kalitate Batzordearen arautegi hau gehituko zaio Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Arautegiari VI. Eranskin gisa, orain dagoena ordezkatzuz.

Bigarren xedapen iragankorra

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak arautegi hau behin betiko onartu artean, Kalitate Batzordeak eta bertan zehaztu diren laguntza batzordeek 2010eko uztailaren 9ko osaera eta kide berberak izango dituzte. Arautegia behin betiko onartzen denetik, handik eta bi hileko epean ezohiko bilerarako deia egingo zaio Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Batzarrari, Kalitate

Batzordeko kideak izendatzeko eta laguntza batzordeak formalki eratzeko, arautegi honi jarraiki.

Hirugarren xedapen iragankorra

Arautegia behin betiko onartu eta bi hileko epearen barruan eguneratu egin beharko dira Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Kalitate Eskuliburuko eta Prozedura eta Prozesuen Eskuliburuko dokumentu guztiak, Kalitate Batzordeko arautegi honi egokitzeko.

Azken xedapena

Arautegi hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean.

Gasteiz, 2010eko uztailaren 9a